

adoptia



adoptia txiki
Haur adoptatuentzako gida



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITA ETA GIZARTE
GAETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES

3

aadoptia

adoptia txiki
Haur adoptatuentzako gida

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA
Gizarte Ongizateko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Bienestar Social

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako
Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke:

<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Argitaratutako izenburua:

1. Familientzako adopzio ondorengo gidaliburua
2. Adopzio ondorengo gidaliburua hezkuntza-arloko profesionalentzat eta gizarte-eragilentzat
3. Haur adoptatuentzako gida

Argitaraldia: 1. a, 2008ko azaroa

Ale-kopurua: 5.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
c/ Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Egileak:  Agintzari Sociedad Cooperativa de Iniciativa Social
Área, 3. Consultoría social. Puente de Deusto, 7 - 48014 Bilbao

Marrazkiak: Gerardo Basabe, info@basabeanimation.com, patton_ger@yahoo.es

Fotokonposizioa: RGM, S.A.

Inprimaketa: RGM, S.A.

ISBN: 978-84-457-2825-3

L.G...: BI - 3401 - 08

Aurkezpena

Zirkulua ixten duen gida

Denborak aurrera egin ahala adopzioa hazkunde etengabeko eta gero eta onespren handiagoko gizarte-fenomeno bat izatera igaro da Euskal Autonomia Erkidegoan. Izan ere, adopzioak urtetik urtera igo dira, urte bakoitzean gutxi gorabehera 300 adopziotan egonkortu arte, eta era berean, igoera horrekin gai horren inguruan daukagun ezagutza igo da.

Duela hiru urte gutxi gorabehera, betiere Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren laguntzarekin, Agintzarik adopzio ondorengo lehenengo gida bat sortu zuen, Adoptia izenarekin eta adoptatzen duten aita-amei zuzendua. Haur adoptatu bat familiara sartzeak sortzen dituen erronkei modurik egokienean aurre egiteko tresna gisa diseinatu da gida.

Handik gutxira, Eusko Jaurlaritzak eta Agintzarik berriz ere ahaleginak eta konpromisoa batu genituen Adoptia bigarren gida bat egiteko —oraingo honetan hezkuntzako profesionalentzat eta gizarte-eragileentzat— haur adoptatuek beren eskola- eta gizarte-egokitzapeneko prozesuetan eguneroko bizitzan izan ditzaketen zailtasunak identifikatzeko tresnak eta jakintzak ematearren, baita zailtasun horiei behar bezala heltzeko beharrezko hezkuntza-gakoak ematearren ere.

Eta orain, protagonista berdinek, hau da, Agintzari eta Eusko Jaurlaritzak, hirugarren eta azkeneko Adoptia gida aurkezten dugu. Gidako protagonista nagusiak haur adoptatuak dira, iragan gogor bat gainditu behar duten eta beren jatorrizko errealitatearekin zerikusirik ez duen errealitatera ohitu behar duten haurrak, eta kasu askotan ingurukoekiko arraza-desberdintasuna dago; izan ere beren arraza ikaskide, jolas-kide eta bizikide dituzten pertsona gehienen arrazarekiko desberdina izatearen erronka konplikatuari aurre egin behar diote.

Ez dut zalantzarik erraz irakurtzeko eta erabiltzeko gida honek beren egoera berria ulertzen eta beren bizitza markatzen duen abandonuarekin bakean bizitzen lagunduko diela, askotan haur horiek beren bizitzaren errudun sentitzen baitira. Haur adoptatu guztiek gida horretan ulermena eta konpromisoa aurkitzea espero dut, pertsona guztiok bizimodu normalizatu bat bizitzeko behar dugun laguntza.

Javier Madrazo Lavín
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua
Eusko Jaurlaritza

Gurasoentzako hitzaurrea

Adoptia Txiki gida 10 urtetik gorako haur adoptatuentzat bereziki egindako gida bat da. Adoptia Zerbitzuko laguntza eta kontsulta psikosozialeko gunean aditzera eman dizkiguten esperientziak, narrazioak eta kezkek oinarritzat hartuta idatzi da¹.

Adin horretan badira premia nabarmen batzuk; ulertzeko, euren historia propioa sortzeko eta adopzioari buruzko galderei erantzuteko premiak, hain zuzen ere.

Bilaketa-prozesu horretarako komunikazio-irekiera, adopziozko familiek kudeatu behar duten zerbait da adopzioa eta hura eragin zuen abandonua haurren nortasunarentzat bizipen problematiko eta kaltegarri ez bihurtzeko.

Gida irakurtzean gerta daiteke mezu batzuen gardentasuna eta argitasuna dela-eta harritzea eta mezuak nahiko gordinak direla pentsatzea. Hala ere, haur adoptatuek jakiteko eta ulertzeko duten premiak zera dakar, haurrek zuzeneko hizkera nahiago izatea, topiko eta fantasiak edo esaldi gozagarriak alde batera utzita. Horrela hitz egiten dute haurrek, argi eta garbi.

Nolanahi ere, zure seme edo alabarekin batera irakurtzera gonbidatzen zaitugu bai eta haren nortasuna eraikitzeko bitarteko tresna gisa erabiltzera ere.

¹ Adoptia Zerbitzua. Agintzari Gizarte-ekimenerako Kooperatiba. Ramón y Cajal etorbidea, 48 lonja. 48014 Bilbo

Ongi etorri Adoptia Txikira

Adoptia Txiki adopzioari buruzko gida bat da, bereziki 10 urtetik gorako haur adoptatuentzako egindakoa.

Adopziozko familiei eta pertsona adoptatuei beren arazoak gainditzen laguntzen aritzen garen pertsona helduok landu dugu gida.

Zu bezalako haur adoptatuek kontatu dizkiguzuen gauzak biltzen ditu. Horregatik biltzen ditu zuk noiz edo noiz zeure buruari egindako galderak, eta, era berean, zuretzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak lantzen ditu.

Ez duzu nahitaez hasieratik bukaeraraino segidan irakurri behar: begiratu zer kapitulu den zuretzat interesgarriena eta hasi hori irakurtzen. Eta ahalegindu proposatzen diren zereginak egiten, batez ere pentsatzekoak direnak.

Hala nahi izanez gero, amarekin edo aitarekin irakurtzera animatu nahi zaitugu; galdetu berari ulertzen ez dituzun gauzak edo dituzun zalantzak argitzeko eskatu.

Espero dugu zure gustukoa izatea eta adopzioa hobeto ulertzen laguntzea.

Aurkibidea

1. Zenbat gara?	8
2. Nongoak dira haur adoptatuak	10
3. Berdinak eta ezberdinak!	12
4. Arrazakeria?	16
5. Nire familia ezberdina al da?	18
6. Adopzioari buruz hitz egitea ez da gauza erraza	20
7. Zergatik da zailagoa adopzioari buruz hitz egitea beste gauza batzuei buruz hitz egitea baino?	22
8. Zergatik abandonatu ninduen nire familia biologikoak?	26
9. Eta ni adoptatu baino lehen zer?	30
10. Nola nabaritzen da gurasoen abandonua?	34
11. Nor da nor adopzioan?	38
12. Gurasoentzako informazioa	41

1. Zenbat gara?

3400
gara!

Zenbat gara?

Euskal Herrian gutxi gorabehera **3.400** pertsona zarete adoptatuta zaudetenak. Adin guztietako jendea dago, umetatik hasi eta nerabeak arte, bai eta 18 urtetik gorakoak ere.

Euskadin bizi den **ehun haurretatik bat** adoptatua dela esan dezakezu. Ez zenuen susmorik ere, ezta?

KONTATZEN:

Egin ezazu zerrenda bat ezagutzen dituzun haur adoptatuen izen eta adinarekin. Zenbatu zenbat diren.

Nahiz izanez gero, argazkia eskatu eta itsats dezakezu.



Izena	Abizenak	Adina

2. Nongoak dira haur adoptatuak?

*Nongoak dira haur
adoptatuak?*

*Ainara hamaika hilabete zituela
adoptatu zuten haur bat da. «Nongoa
zara?» galdetzen diotenean Santo
Domingokoa dela erantzuten du, eta
euskalduna eta dominikarra dela.*

*Ainara duela hamabi urtetik
Barakaldon bizi da. Bere inguruko
Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean
DBHko lehenengo maila egiten ari da,
astearte eta ostegunetan balet-eskoletara*

*joaten da eta bere neba bezala
Athleticen jarraitzailea da.*

*Ez daki asko Dominikar Errepublikari
buruz. Badaki mapan non dagoen eta
gurasoek kontatutako gauza batzuk. Ez
daki hango ikastetxeak nolakoak diren,
ez zein den bertako janari tipikoa, ezta
jendeak zer musika mota gustuko duen ere.*

*Zergatik dio euskalduna eta
dominikarra dela?*

Seguraski behin baino gehiagotan galdetu dizuete nongoak zareten. Ia beti jakin-minagatik izaten da, ezaugarri fisiko berezi batzuk ikusita jatorria zein den jakin nahi baitute.

Jaioterria garrantzitsua da zuen bizitzaren historian eta zuen nortasunean. Zuen familiarekin bizi zareten lekua ere garrantzitsua da, bertan baitaude zuen adiskideak.

Ainara Santo Domingon jaio zen eta Barakaldokoa da. Horregatik dio euskalduna eta dominikarra dela.

Zuk nola erantzuten duzu nongoa zaren galdetzen dizutenean?

3. Berdinak eta ezberdinak



Zuetako asko beste kultura, hizkuntza, ohitura, janzkera eta pentsaera batzuk dauzkaten herrialde batekoak zarete. Litekeena da zuek larruazala beltzaranagoa edo zurbilagoa izatea, begiak ekialdeko motakoak izatea edo ilea oso horia izatea, ia zuria, edo oso beltza edo oso kizkurra...

Pertsona bakoitza bakarra da eta denok berdinak eta ezberdinak gara. Garaiak eta baxuak diren pertsonak daude, lodiak eta argalak, atseginak eta desatseginak, ilehoriak, beltzaranak, ilegorriak, eta abar. Garrantzitsua da ezberdintasun horiek errespetatzea eta modu positiboan hartzea, berdinak garenez gero gure eskubideak defendatuz.

Baina batzuetan ezberdintasun horiek zera eragiten dute, jendearen begirada erakartzea, edo zuri begira denbora gehiegi ematea eta horrek enbarazu egin diezazuke edo haserretu zaitezke. Ziur behin baino gehiagotan nahiago zenuela inor zutaz ez konturatzea eta jendeak zu ikusi orduko haur adoptatua zarela ez jakitea.

- ✓ Munduan ezaugarri ezberdinak dituzten pertsona talde ugari dago.
- ✓ Pertsonak ez dira ez hobekak ezta okerragoak ere ezberdinak izateagatik

Zure gurasordeei edo lagunei begiratu eta aldeak oso erraz ikusten dituzu, baina antzekotasunak aurkitzea kostatu egiten zaizu.

Aldeak fisikoan daude, ikusten den horretan eta adopziozko familiarekin eman ez duzuen bizitzaren zatian.

Familia bateko pertsonak ezin dira denek ezberdinak izan, alde batzuk eduki ditzakete eta antzekotasun asko. Egizu proba:

ANTZEKOTASUN ETA ALDEEN ARIKETA:

Jar ezazu gurutze batez zenbaterainoko antza daukazu familiakoekin eta ingurukoekin.



	Handia	Txikia	Batere ez
Ilearen kolorean			
Izaeran			
Gustuko duzun janarian			
Gustuko duzun kirolean			
Entzuten dituzun abestietan eta musikan			
Larruazalaren kolorean			
Txistetan eta umore-senean			
Ibileran			
Gustuko duzun joko eta jostailuetan			
Antza handiena duzun gauza zera da,			
Alde handiena duzun gauza zera da,			



4. Arrazakeria?



Arrazakeria?

«kongito», «txokolate», «rusiana», «negrata», «txinorri»,...txantxetan izan badaiteke ere, errespetu falta da, iraina eta arrazakeria-adierazpena.

Bai, arrazakeria da hori.

Pertsona batek larruazala, ilea, begiak, sexua, herrialdea, erlijioa edo beste ezaugarri batzuk erabiltzen dituenean iraintzeko, eraso egiteko edo beste pertsona batzuk ergelagoak edo okerragoak direla edo eskubide berberak merezi ez dituztela esateko, diskriminatzen ari da eta arrazista izaten ari da.

Badaude pertsona batzuk zuen jatorriko herrialdeak edo zuen desberdintasunak zuek iraintzeko eta zuek gaizki sentiarazteko erabiltzen dituztenak.

Aldeek edo desberdintasunek min ematen dute beste batzuek min emateko erabiltzen dituztenean.

Beti, beti, beti, zeuen burua defendatu behar duzue edo laguntza eskatu zuen familiako edo eskolako pertsona helduei norbaitek, umea edo heldua izan, arrazakeriazko iruzkinak edo komentarioak egiten dituztenean.

Enbarazu egiten dizuetenean eskatu laguntza, enbarazu horrek zera esan nahi baitu, arrazakeriaren biktimak zaretela eta babesa jasotzeko eskubidea daukazuela. Ez beldur izan.

Haurrok ez duzue zergatik arrazakeria toleratu behar, ezta onartu beharrik ere. Esan ezeeeeeeeeeeeeeeetz arrazakeriari.

5. Nire familia ezberdina al da?

*Nire familia
ezberdina al da?*

Mikelek 8 urte ditu, errusiarra da jatorriz eta 4 urte zituenean adoptatu zuten. Bere lagun onena Jon da eta gela berean dago eskolan. Mikel eta Jon ez dira ia inoiz haserretzen, baina bada gauza bat Mikelek jasaten ez duena, zera da, adoptatua delako besteak bera zirikatzen ibiltzea edo berak argi ez dituen gauza askori buruz galdetzea. Gehienek ez dute ulertzen zer den adopzioa ezta zergatik gertatzen den ere. Lehengo egunean honako hau esan zion

beste gela bateko mutiko batek:

— *Zure ama ez da zure benetako ama ez zintuelako sabelean eduki. Ziur zure benetako amak maite ez zintuelako abandonatu zintuela.*

Mikelek ez zion erantzun. Ostikada bat eman eta korrika alde egin zuen.

Arratsalde hartan Mikel nahiko triste eta pentsakor egon zen etxean.




PENTSATZEKO LANAK:

1. *Sekula esan al dizute hori? Nola sentitu zinen?*
2. *Zer iruditzen zaizu Mikelen erantzuna?*
3. *Zuk zer erantzungo zenukeen?*

Zuen ikaskideentzat zaila da adopzioa zer den ulertzea, ez baitute bizi izan. Familia edukitzeko modu bakarra beraiena dela uste dute. Horregatik esaten dute zure gurasoak ez direla «benetakoak».

Baina zer da benetako familia bat? Pixka bat erreparatuz gero, familia mota asko daudela ikusiko duzu: badaude aitona-amonekin bizi diren haurrak, edo guraso bakarrarekin bizi direnak bananduak daudelako edo harrerako familiarekin bizi direnak,.... Adopziozko familia ez da beste bat baino hobea ezta okerragoa ere. Zure familia da, besterik gabe, eta ziur zuretzat familia onena dela.

6. Adopzioari buruz hitz egitea ez da erraza




Adopzioari buruz hitz egitea ez da erraza.

Adoptatu guztiek pentsatzen dute adopzioan, horri buruz hitz egiten ez badute ere. Gazteagoa zinenean eta zure familiakoekin zure adopzioari buruz hitz egiten zenuenean, seguraski zure bila urruti dagoen herrialde batera joateko egindako bidaiari buruzko gauzak kontatzen zizkizuten, argazkiak erakusten zizkizuten eta gustuko zenuen lehenengo egunetako bideoak ikustea.

Orain dagoeneko zure bizitzari buruz pentsatzeko helduagoa zarenez, zu adoptatu baino lehen gertatuko ziren gauzen berri ari zara jasotzen. Normalean, 8 urte dituzuenen denok badakizue adoptatu zintuztetela eta horrek esan nahi duela, hainbat arrazoi direla-eta, zuen familia biologikoak ezin izan zintuztetela behar bezala zaindu eta horregatik oraingo gurasoek zuek adoptatu baino lehen umezurtz-etxeetan, beste norbaiten etxean edo harrera familiekin bizi behar izan zenutela.

Adopzioari buruz hitz egitea ez da erraza, baina kezka barnean uzteak ez du zuen sentimenduak eta pentsamenduak argitzen laguntzen.



GOGOAN IZAN:

«Isiltasunak kezka areagotzen ditu»

7. Zergatik da zailagoa adopzioari buruz hitz egitea beste gai batzuei buruz hitz egitea baino?

Zergatik da zailagoa adopzioari buruz hitz egitea beste gai batzuei buruz hitz egitea baino?

Azalpen asko daude eta haietako batzuk errepasatuko ditugu:

- Ezin zaitu jende guztiak ulertu. Pertsona gutxik ulertzen dituzte adoptatuen edo haurrak adoptatu dituztenen sentimendu edo kezkek.
- Adopzioari buruz hitz egitea une onei eta gauza politei buruz hitz egitea da, baina baita kezkatzen duten beste gauza batzuei buruz hitz egitea ere, hala nola, abandonuari buruz hitz egitea.
- Zortzi urte zenituztenerako, baita lehenago ere agian, jakin duzue zuek adoptatu ahal izateko, zuen familia biologikoak abandonatu ondoren beste pertsona batzuen esku geratu zinetela.

- Abandonua beti da esperientzia mingarria eta ulertzen zaila, bakarrik zergatik utzi zintuzteten edo zer arrazoi egon ziren jakiteko beharra sentitzen baduzue ere.

Adopzioari buruz hitz egitea zaila da min eman dezakeelako edo beldurra.

- Pertsona askok uste dute ez dela ona gauza mingarriei buruz hitz egitea, edo ez dakite horri buruz nola hitz egin. Batzuetan pentsatzen duzue zuen iraganari buruz galdetzen baduzue zuen familia biologikokoa triste jar daitekeela, edo haserre. Edo beldur zarete, uste duzuelako zergatik adoptatu zintuzteten galdetzean zuen gurasoek pentsatuko dutela ez dituzuela maite.
- Zuen adopziozko familia ez da haserretzen zuen adopzioari buruz galdetzeagatik. **Kezkutzen zaituzteten gauzei buruz hitz egiteak guraso hobeak izaten laguntzen die aitari eta amari.**

Min ematen duenari buruz hitz egiteak min gutxiago eman dezan laguntzen du.




NOR AUKERATUKO DUZU?

- *Kezka bat edukitzean.....ekin hitz egin dezaket.*
- *Lagun bati sekretu bat kontatu beharko banio.....ri kontatuko nioke.*
- *Hurrengoan laguntza behar izateanri eskatuko diot.*

Laguntza eskatzeak hobeto egoten laguntzen du.
Hitz egin aitarekin edo amarekin zure kezkei buruz.



8. Zergatik utzi ninduen bakarrik familia biologikoak?



*Zergatik utzi ninduen
bakarrik familia biologikoak?*

Zure guraso biologikoek zu zaindu eta zure ardura hartu ezin izateko oso gertaera eta egoera gogorak eta ulertzen zailak gertatuko ziren:

- Badira haur batzuk adoptatu baino lehen beren familia biologikoekin bizi izan zirenak, baina halako batean agintariak esku hartu behar izan zuten haurrak babesteko, etxean ez zituztelako ondo zaintzen edo tratu txarrak jasotzen zituztelako.
- Badira haur batzuk beren familia biologikoa gerran edo hondamendi batean edo gaixotasunen bat zela-eta galdu zutenak eta agintariak haien ardura hartu arte bakarrik geratu zirenak.

- Badira haur batzuk gurasoek zaindu ezin zituztelako edo maite ez zituztelako abandonatu zituztenak.
- Badira haur batzuk umezurtz-etxe baten atarian edo toki publikoren batean bakarrik utzi zituztenak, izan ere, herrialde batzuetan, bidegabekeria bada ere, mutiko baten bizitzak neskatxa baten bizitzak baino balio handiagoa duelako.
- Badira haur batzuk familia biologikoa oso txiroa zutenak edo gose zirenak eta gurasoek, seme-alaben onerako, bizi hobea izan zezaten, adopzioan utzi zituztenak.

Adopzioa abandonuarekin dago lotuta, eta abandonua zaila da ulertzen, min ematen du, baita amorru handia ere.

...Pentsamenduak

PENTSAMENDUEI BURUZKO ARIKETA:

Idatzi BAI ala EZ inoiz honako moduko gauzak pentsatu badituzu:


- Guraso batzuek seme-alabak abandonatzeko arrazoi bakarra desobedientzia izan zen, seme-alabak gurasoen aginduak betetzen ez zituztelako
- Merezi zutelako abandonatu zituzten
- Gaizki portatzen zirelako abandonatu zituzten
- Horregatik abandonatu ninduten ni
- Berriz abandona nazaketela pentsatu dut
- Nire adopziozko amak edo aitak ni maitatzeari utz diezaioke agian



Adierazitako pentsamendu horiek noizbait izan badituzu garrantzitsua da honako hau gogoratzea:

- 1 Haur bakar batek ere ez du merezi abandonua.
- 2 Haur bakar batek ere ez du bere abandonuaren ez errua ezta erantzukizuna ere.
- 3 Haur bat ez da sekula abandonatzen gaizki portatzen delako, ikasten ez duelako edo gezurrak esaten dituelako.
- 4 Adopzioak familia berri baten kide izatea dakar eta familia hori betiko da. Haur adoptatuak ezin dira itzuli.
- 5 Haur adoptatuek beren jatorriaren berri izateko eskubidea dute.

9. Eta ni adoptatu baino lehen zer?



*Eta ni adoptatu
baino lehen zer?*

Anek 10 urte ditu. Adopziozko amak 13 hilabete zituela ekarri zuen Txinatik.

Amak haurtxoa zen garaiko gauzak kontatu dizkio: gutxi negar egiten zuela, ez zuela asko jaten, fruta-purea gailatekin zuela gustuko eta berehala hasi zela gazteleraz eta euskaraz hitz egiten.

Lehenengo hilabeteetan umezurtzetxe batean egon zela ere kontatu dio eta ez dakitela gauza askorik bere familia txinatarrari buruz, oso txiroa den nekazari-herrixka batekoak zirela baino ez.

Oso gazteak garenean gertatzen zaizkigun gauzak, baita haurtxoak garenean ere, oso garrantzitsuak dira, gogoratzen ez baditugu ere.

Adoptatu baino lehen gertatzen dena ez da sekula guztiz ahazten. Haurtxoak zirela adoptatu zituztenek eta gogoratzen ez dutenek ere nolabaiteko kezka sentitzen dute horretan pentsatzean.

Badira haur batzuk jaio eta berehala adoptatu zituztenak eta abandonua ia jasan ez dutenak. Ohikoena zera da, zu adoptatu baino lehen oso une txarrak igaro izana, gogoratzen ez badituzu ere, tristura, larritasuna, beldurra sentiarazi zizkizutenak.

Bizitzako lehenengo urteetan abandonua jasan denean, zauriak geratzen dira, guztiz sendatzen denbora luzea ematen duten zauriak.

Bizitzako lehenengo urteak etxe baten zimenduak bezalakoak dira, goikoa eusten dutenak.

IKER EZAZU:


Zure bizitza-liburua landu edo eguneratzea proposatzen dizugu. Idatzi gertatu zaizkizun gauza interesgarrienak eta argazkiekin, mapekin, postalekin osatu: jaiio izana, familia biologikoa, zure lehenengo urtebetetzea, noiz adoptatu zintuzten, zure lehenengo eskola-eguna...

Anima zaitetz eta egin ezazu ordenagailuan. Ez zaitetz kezkatu datu guztiak ez badituzu. Iker ezazu eta galdetu zure adopziozko familiakoei.





10. Nola nabaritzen da gurasoek bakarrik utzi izana?



*Nola nabaritzen da
gurasoek bakarrik
utzi izana?*


Ikusi dugun moduan, gaur egungo familiaren kide izan baino lehen haur adoptatu askok oso egoera latzak bizi izan dituzte, min ematen duten egoerak eta ixten zailak diren zauriak eragiten dituztenak.

Batzuetan zauri horiek jokabidean, pentsamenduetan edo beste pertsona batzuekin harremanak edukitzeko moduan agertzen dira.

ZURE JOKABIDE TESTA:

Inoiz horrelako jokabiderik eduki al duzu?

Jarri gurutze bat dagokion laukian.



	Bai	Ez
Saiatzen banaiz ere, dena gaizki egiten dut		
Ez dakit zer egin eta erabakiak hartzeko zalantzak dauzkat		
Gainerakoak ni baino hobeak dira		
Adopziozko gurasoek gutxiago maitatzen dute.		
Amorruak gailentzen nau eta ezin dut kontrolatu		
Maiz triste jartzen naiz eta ez dakit zergatik		
Zigorrak bost axola zaizkidala esaten dut harroputzarena egiteko		
Nahiago dut gaiztoa izan ergela baino		


Irakurri berri dituzun jokabideak ohikoak dira haur adoptatuetan. Haurtzaroan bizi izandako abandonuaren ondorio dira, ez gaiztoak izatearen ondorio.

Baina zuen jokabidearen eta egunero zuen burua gehiago kontrolatzeko, lasaiago egoteko, zuen buruarekiko konfiantza eduki eta ziurrago sentitzeko ahaleginak egiteko erantzukizuna ere hartu behar duzuela esan behar dizuegu.

Batzuetan haur adoptatuok besteek baino ahalegin handiagoak egin behar dituzue «bizitzaren lasterketa» hainbat zailtasunekin hasi baituzue. Horregatik ere txalo bero bat merezi duzue.



11. Nor da nor adopzioan?



Haur baten adopzioa ez da egun batetik bestera egiten. Zuentzat aukera onena dela ziur egoteko denbora behar da.

Ondo ere egin behar da, horregatik zuen adopziozko gurasoei azterketa moduko bat egiten zaie egokiak direla frogatzeko.

Gainera, adopzio-prozesuan pertsona askok esku hartzen dute: erakundeek, epaileek, harrera-zentroetako profesionalek, adoptatu nahi duten familiek, eta abar.

Jolas bat proposatzen dizugu: **nor da nor adopzioan**. Bakoitzak adopzioan zer egiten duen esatean datza.

NOR DA NOR ADOPZIOAN?

Asma ezazu zertan datzan eta ondorengo pertsonai bakoitzak zer egiten duen adopzioan.



	?
Foru Aldundia	
Nazioarteko Adopziorako Erakunde Laguntzailea	
Eusko Jaurlaritza	
Epailea	
Zentroko hezitzaileak	
Adopziozko Familien Elkartea	
Egokitasun-ziurtagiria	
Eskaera-epea	
Jatorria ezagutzeko eskubidea	

Gogoratu:

- Adopzioa guraso biologikoek abandonatuak izan diren haurren eskubidea da.
- Babesa haurren eskubideetako bat da, legeak bildutako eskubidea.
- Arrazoiak edozein direlarik ere, haien familia biologikoek ondo zaindu ezin dituztelako agintariek babestu behar dituzten haurrak baino ezin dira adoptatu.

12. Gurasoentzako informazioa

Adopziozko Familien Elkarteak:

- Ume-Alaia Bizkaia: Tel.: 688 64 92 82, www.umealaia.com, umealaia@euskalnet.net
- Ume-Alaia Gipuzkoa: Tel. 943 24 56 06 eta 655 72 69 11 www.umealaia.com, umealaiagi@euskalnet.net
- Anichi: Tel.: 677 19 07 39, www.anichi.org, anichi@anichi.org.

Umeen zerbitzuak:

- Arabako Foru Aldundia. Tel.: 945 15 10 15 . Adingabearen eta Familiaren Alorra, tel.: 945 12 10 6 www.alava.net.
- Bizkaiko Foru Aldundia. Umeen zerbitzua Tel.: 94 406 72 70, Nazioarteko Adopzioko Alorra tel.: 94 406 79 69 / 94 406 72 68 94 608 29 67 www.bizkaia.net.
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Umeen, nerabeen eta gazteen zerbitzua. Familia-harrerako eta adopzioko atala. tel.: 943 11 26 77, www.gipuzkoa.net.

Eusko Jaurlaritza, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritza tel.: 945 016422 www.euskadi.net.

Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoa, tel.: 945 01 64 05.

